6/2024 EBAZPENA, irailaren 26koa.

BATZORDEBURUA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

BATZORDEKIDEA: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

ERREFERENTZIA: RMT-2024-005

Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak, adierazitako kideek osatutakoak, EBAZPEN hau jaulki du [redacted] jaunak formulatu duen erreklamazioari dagokionez. Erreklamazio hau jarri zuen Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaerari emandako erantzunari buruz. Txostengilea Nerea García Rodríguez izan da eta Batzordearen iritzia adierazten du.

## AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2024ko ekainaren 3an [redacted] jaunak (aurrerantzean "[redacted] edo "*erreklamaziogilea*") informazio publikoa eskuratzeko eskaera egin zion Bizkaiko Foru Aldundiari.

Erreklamaziogileak informazioa eskatu zuen eguneko zentroko plazen gehieneko kostu teorikoa arautzen duen lehen Foru Dekretua indarrean jarri aurretik egindako azterlan eta kalkuluei buruz, zehazki garraioaren kostuei buruz, gaur egun eguneko 12 euro baitira, dagokion BEZa barne.

RESOLUCIÓN 6/2024, de 26 de septiembre.

PRESIDENTA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

VOCAL: Nerea García Rodríguez..

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

REFERENCIA: RMT-2024-005.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, compuesta por las personas integrantes anteriormente detalladas, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por [redacted] frente a la respuesta dada a su solicitud de acceso a información pública por parte de la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social. Actúa como ponente Nerea García Rodríguez, quien expresa el parecer de la Comisión.

## ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. Con fecha 3 de junio de 2024, [redacted] (en lo sucesivo, indistintamente, "[redacted]" o *"el reclamante"*) presentó solicitud de acceso a información pública dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia.

El reclamante solicitaba información acerca de los estudios y estimaciones realizados previo a la entrada en vigor del primer Decreto foral regulador del coste teórico máximo de las plazas del centro de día, en concreto respecto a los costes del transporte, que actualmente son de 12 euros diarios incluyendo IVA correspondiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43XE-8PVZ-N56C-Y18D
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIGARRENA.- 2024ko uztailaren 9an, [redacted] erreklamazioa jarri zuen aurreko ebazpenaren aurka, informazio publikoa eskuratzeko aurreko eskaerari erantzuteko epea igaro zela iritzita, eta ez zitzaiolako erantzunik jakinarazi.

SEGUNDO.- Con fecha 9 de julio de 2024, [redacted] interpone reclamación frente a la resolución anterior, al entender transcurrido el plazo para dar respuesta a la anterior solicitud de acceso a la información pública, no habiéndole sido notificada contestación alguna.

HIRUGARRENA.- Erreklamazio horren ondorioz, txostena eskatu zitzaion Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, erreklamazioaren xede den gaian eskumena duenak. Zuzendaritza honek aurkeztutako informazioa dela eta, ebazpena jakinarazteko bidean omen zegoen.

TERCERO.- Como consecuencia de dicha reclamación, se solicitó informe a la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social, al ser la competente en la materia objeto de la reclamación, quien informó que la resolución estaba en curso de ser notificada.

LAUGARRENA.- Hala, 2024ko abuztuaren 26an, erreklamaziogileak aurkeztutako idazkiaren berri eman zitzaion Batzorde honi. Idazki horren arabera, erreklamatzaileak atzera egin zuen erreklamazioan, informazio publikoa eskuratzeko eskaerari (SAIP) emandako erantzuna Batzorde honetan erreklamazioa aurkeztu eta gutxira jaso baitzuen, eta haren jakinarazpen-data 2024ko uztailaren 18a zen.

CUARTO.- De tal forma que, con fecha 26 de agosto de 2024, se comunica a esta Comisión el escrito presentado por el reclamante, en virtud del cual comunica que desiste de su reclamación, toda vez que había recibido la contestación a solicitud de acceso a información pública (SAIP) poco después de haber presentado reclamación ante esta Comisión, constando como fecha de notificación de la misma el 18 de julio de 2024..

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENA. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren (aurrerantzean, "*1/2016 Foru Araua*") 27. artikuluaren bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-erakunde autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru fundazioetako, foru partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, "*Norma Foral 1/2016*").

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, de dicha Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43XE-8PVZ-N56C-Y18D
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (*"128/2016 Foru Dekretua"*) bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

<u>BIGARRENA</u>. Kasu honetan, aurreko aurrekarietan adierazi den bezala, [redacted] bere erreklamazioan atzera egin duela jakinarazi du, eskatutako dokumentazioa lortu baitu, bere eskaerari emandako erantzunaren bidez; izan ere, informazio publikoa eskuratzeko eskaera horren erantzuna jakinarazpen-prozesuan zegoen, hizpide dugun erreklamazioa aurkeztu zen egunean.

<u>HIRUGARRENA</u>. – Lehen aipatutako 39/2015 Legea prozedura honi aplika dakioke, gardentasunari buruzko araudian berariazko xedapenik ez dagoelako, eta 23. artikuluan, ebazteko betebeharrari buruzkoan, ezartzen du ezen, preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, bai eta prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, ebazpena kasuan kasuko inguruabarraren adierazpena izango dela, gertatutako egitateak eta aplikatu beharreko arauak adierazita.

Bestalde, lege-testu beraren 94.4 artikuluak aurreikusten duenez, interesdunak atzera egiten badu, bete-betean onartuko da, eta amaitutzat emango da prozedura, salbu eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta egonik, haiek prozedura jarraitzeko eskatzen badute atzera egitea jakinarazi eta hamar eguneko epean, eta hori ez da gertatzen kasu honetan.

Aurrekoa aplikatuz, bidezkoa da [redacted] bideratutako eskaeraren atzera egitea

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio (*"Decreto Foral 128/2016"*), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

<u>SEGUNDO.</u> En el presente caso, tal y como se ha indicado en los antecedentes anteriores, el [redacted] ha comunicado el desestimiento de su reclamación al haber obtenido la documentación solicitada, mediante la contestación a la SAIP presentada anteriormente, ya que la respuesta a dicha solicitud de acceso a información pública se encontraba en proceso de notificación a fecha de la presentación de la reclamación que nos ocupa.

<u>TERCERO</u>. – La Ley 39/2015 anteriormente mencionada, que resulta aplicable a este procedimiento a falta de disposición expresa en la normativa de transparencia, establece en su artículo 23, relativo a la obligación de resolver, que en los casos de prescripción, renuncia del derecho, caducidad del procedimiento o <u>desistimiento de la solicitud</u>, así como de desaparición sobrevenida del objeto del procedimiento, la resolución consistirá en la declaración de la circunstancia que concurra en cada caso, con indicación de los hechos producidos y las normas aplicables.

Por su parte, el artículo 94.4 del mismo texto legal prevé que, en el caso de desistimiento de la persona interesada, se aceptará de plano el mismo y se declarará concluso el procedimiento salvo que, habiéndose personado en el mismo terceras personas interesadas, instasen éstas su continuación en el plazo de diez días desde que fueron notificados del desistimiento, extremo éste que no se da en el presente caso.

En aplicación de lo anterior, procede aceptar el desistimiento del [redacted] y declarar el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43XE-8PVZ-N56C-Y18D
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

onartzea eta espedientea artxibatzea.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, honako hau erabaki du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea [redacted] bideratutako eskaeraren atzera egitea 2024/005 gardentasun-erreklamazioari dagokionez, eta, ondorioz, espedientea artxibatzea.

BIGARRENA.- Ebazpen hau errekurtso-egileari eta Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea. Era berean, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

HIRUGARRENA. Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten denetik eta BI (2) HILABETEKO epearen barruan.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

archivo del expediente.

Como consecuencia de todo lo anterior, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente:

RESOLUCIÓN

PRIMERO. Aceptar el desistimiento de [redacted] en relación la Reclamación en materia de transparencia 2024/005 y, en consecuencia, acordar el archivo del expediente.

SEGUNDO. Notificar esta resolución al reclamante y a la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

TERCERO. – La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 43XE-8PVZ-N56C-Y18D
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sin./Fdo.: IÑIGO ALVEAR LECUE 2024-10-01
IDAZKARIA
EL SECRETARIO